

MOTIBAZIO JARDUERAK: Jendearen kontzientzietan eragin nahian

80ko hamarkadaren lehen urteetan, indar berezi hartu zuten euskararen aldeko motibazio jarduerak Elgoibarko Izarran. Familietan eta ikastetxeetan jendeak euskara ikasten bazuen ere, herrian erdal giroa zen nagusi.

Dozena erdi lagun inguru, astero-astero hasi ziren elkartzen herrian euskararen aldeko jarrera indartzeko helburuarekin. Sebas Larrañaga, Iñasio Garmendia, Juan Mari Elustondo, Agustin Gorostiza, Manolo Zabala eta Jon Etxabe ziren, besteak beste, motibazioaren ontziari eragiten jardun zutenak.

Hainbat kanpaina antolatu zen. Batzuk aipatzeagatik: erosketak euskaraz egitearen aldekoa; hitzaldiak eta bestelako kultur jarduerak euskaraz antolatzeako kanpaina; lehen hitza euskaraz kanpaina; eta, azkenik, etxeko harremanak euskaraz izateko kanpaina izan ziren batzuk.

Batzarrak Loritoko lokalean izaten ziren, eta, gehienetan, luze jotzen zuten. "Arratsaldeko 20:00etan hasi eta askotan, 23:00etan etxeratu ezinik ibiltzen ginen".

Batzordean sentsibilitate diferenteko jendea egoterakoan, eztabaida eta gogoeta sakonak eta luzeak izaten zituzten. Hori bai, eztabaidak izan arren, ez omen zuten haserrik izaten.

Garai horretako motibazio kanpainak bi euskarri nagusi izaten zituzten: gutuna eta komikia. Elgoibarko Izarrako bazkide guztiei bidaltzen zitzaien gutun eta komiki bana. Gutunean kanpainaren zergatia eta azalpena joaten bazen, komikian mezuaren eszenifikazioa ikus zitekeen.

Txitxilabakio aldizkaria, Zazpiki Irratia eta tanborradetako karrozak ere aprobeztatzen zituzten euskararen aldeko mezuak eta aldarrikapenak plazaratzeko.

Ez zuten baloratzen kanpainak izaten zuten eragina, baina badirudi asmatzen zutela. Izan ere, erbestetik ere etorri ziren Elgoibarko esperientziaren berri jasotzera.

Eta hamaika lan egin ostean, 1987an inguruan desegin zen batzordea. Baina desegin aurretik azken aletxo eskaini zioten herriko euskalgintzari: Udal Euskara Batzordea. Alderdi politiko guztiekin egon ostean, Udal Euskara Batzordea martxan jartzea lortu zuten.

Batzordea desagertu eta hiru urtera, 1990eko Batzar Orokorrean, Elgoibarko Izarra desagertzeko zorian egon zen. Baina, zorionez, Zuzendaritzako pare bat lagunek Elkarteari eustea erabaki zuten. Elgoibarko Izarraren bigarren etaparen ataria zen.

Familietan eta ikastetxeetan jendeak euskara ikasten bazuen ere, erdal giroa nagusi zen Elgoibarren 80ko hamarkadako lehen urteetan.